

Hil usaina

Jon Mirandek poema eder bat eskaini zion uretan itotako txakur bati. Honatx laburtuta: «Txakur zahar bat errekan —nehork ez jakin nondik jinik—, txakur bat doa errekan uretan gaindik, arin, hilik. Goizean goiz urera jin, arrantzaleek agurtzen zuten. Noizean noiz arrantzaleen amutzarrek zitzatzen zuten. Nagusiak atzo ito zuen, zabar egin baitzen zahartzuz. Norat, erradak, errekan, hilaren hotzez gogorturik? Azken-Eguna urrun da. Haizeak darama urrina. Nik soilik, arima baitan, usnatu nizun hil usaina.»

Hartaz gogoratzen naiz, eta ahapeka errezitatzen,

azken asteetan nire autoan sartzen naizen aldiro. Arrebak dio ez dela hainbesterako, kexati hutsa naizela, baina autoa utzi diodanetik txakur, hil ez dut esango, baina ez bizegiaren usaina hartzen diot autoari. Arrebak zin eta zin egiten du ez duela bere txakurak ez inork nire autoan goraka egin, berak hilotzik garraiatu ez dituela.



Jira
Angel Erro

Aurrekoan zirt edo zart egin eta aire lurrintzailea erostera abiatu nintzen. Mendiko brisa kapsulatuta, itzuli nintzen etxera. Apaldu arren, tarteak hartzen diot oraindik hil usaina autoari. Edo neure buruari. Filosofiko jartzea beste irtenbidea ez dut. Lurruntzea ez dugu beste berpizkunde aukerarik.

Argudioak

Hamaikatan gertatu naiz nire herri hautua adierazi, argudiatu eta justifikatu beharrean, gehienetan besteen galdeketei erantzunez —normalean, beren nazio aukera Espainiako eta Frantziako estatu unibertsal ustekoaren ahalmen nazionalista gotor bezain mozortuan arazten duten mundukohiritar kosmopoliten itaun teoriar kritikoen harira—. Eta tarteak gertatu naiz nire herri hautua neure buruari adierazi, argudiatu eta justifikatu behar —beste hainbeste esplikazio eman beharri aurkitu diodan abantaila bakarra—.

Nolanahi dela, ez dut usate inoiz hasi eta buka argudio sorta bera josi dudanak

euskarri herritar na(h)izela azaltzeko: hizkuntza eta kultura lehenetsi ditut hainbatetan, borondate eta abantailatan bermatu bestetzetan, sentipen metafisikoak aipatu izan ditut, eta, hara, noizbait anarkismoaren behetik gorako komunitarismoa ekarri ere bai. Alegia, nire herri hautuaren zioak aldatuz eta txirikordatuz joan dira, ni neuz bezala —zorionez, esatera ausartuko naiz—. Baina beti izan dute hari konstante bat: jendarte libre eta bidezkoago baten gogoia.

Berriki Mario Zubiaga Zientzia Politikoetako irakasleari irakurri diot «justuen sesesioaren» proposamena independentziarako argudio ardatz gisa. Badut gaur aberri zein amerri baino herritarren egun nahia-gu nukeen honetarako gogor bera.



Bira
Idurre Eskisabel

Zuzendaria:
Martxelo Otamendi
Zuzendariordea:
Iñaki Pexarroman
Edizio arduraduna:
Jose Anjel Aldai
Argitaratzailea:
Euskal Editorea SM
Publizitatea: Biderra
publizitatea
Legedordialua:
SS-0662/03
Batzorde parekidea:
0712184059

Egoitza nagusia:
Martin Ugalde kultur parkea.
Gudarien Etorbidea, z/g.
20140 Andoain.
Telefonoa:
(0034) 943-30 40 30
Faxa: (0034) 943-30 09 43
Webgunea:
www.berria.info
Posta elektronikoa:
berria@berria.info
Publizitatea:
publi@biderra.eu
Harpidetza saila:
(0034) 943-30 43 45

Date: 20/04/2014
Exemplaire: 3.357
Editore: Euskal Editorea s.l.
Directeur de publication:
Martxelo Otamendi
Comission paritaire:
0712184059
Delegation Labourd:
Lisses 3, 64100-Baiona.
Tel.: (0033) 559256220.
Fax: (0033) 559254303.
E-mail: lapurdi@berria.info

ORDEZKARITZAK
Araba: Bizenta Mogel, 6.
Posta kodea: 01008
Gasteiz. Telefonoa:
945-15 04 52. Erredakzioko
faxa: 945-14 83 07.
Posta elektronikoa:
araba@berria.info.
Bizkaia: Uribitarte kalea, 18,
3. C. Posta kodea: 48001
Bilbo. Telefonoa:
94-435 26 00. Erredakzioko
faxa: 94-423 49 75.
Posta elektronikoa:
bizkaia@berria.info.
Lapurdi: Lisses, 3. Posta
kodea: 64100 Baiona.
Telefonoa: 559-25 62 20.
Faxa: 559-25 43 03.
Posta elektronikoa:
lapurdi@berria.info.
Nafarroa: Iratxeko Monasterio,
45, 13. Posta kodea:
31011 Iruñea. Telefonoa:
948-36 66 22.
Publizitatea: 948-36 66 23.
Posta elektronikoa:
nafarroa@berria.info.

berria

Legearen inperioa!

Jon Mirena Landa

Zuzenbide penaleko irakaslea,
EHUn

1. Rajoy jaunak, Espainiako presidentea, Euskal Herrira egindako azkeneko bisita batean esan egin zuen, ETARI ez diogula ezer zor, desagertu —disolbatu— behar dela ahalik eta lasterren eta orduan legearen inperioari soil-soilik ekin beharko zaiola. Legearen inperioa, hortaz, preso direnentzat, ba omen da espero behar dugun errepide-orria.

Har dezagun serio leloa. Legearen inperioak Espainiako Konstituziora garamatza: 25.2. artikulura hain zuzen ere, askatasun gabe-tzaileak diren zigorrak birgizartetzeko helburutik bete behar direla esaten baitu. Jakina denez, gizarteratzea ez da helburu bakarra, baina posible izan behar du, eta, hala ez balitz, zigorra betetzeko modua konstituzioaren kontra-koa, bai eta giza eskubideen aurka-koa ere izango litzateke.

Gizarteratzeko helburuaren garrantzia dela-eta, Presondegi Lege (1/1979) Organiko Orokorren (PLOO) lehenengo artikulua hori berresten du, alegia presondegi-sistemaren goiburua birsartzea izan behar dela. Bestela esanda: epaia eman ondoren, zigorra aldarrikaturik, presondegi barruan antolatuta behar da egiten den gutzia presoak etorkizunean berriro sartzea ahalbidetzeko.

2. Baina zer da berriz sartzea, gizarteratzea, berriz hezte? Segun zein den horren edukia, halakoa beharko da izan presondegi-barruko bizimodua. Berriz sartzearen eduki estandarra, demokratikoa, abiapuntua beharko lukeen zigoretzetz demokratikoa gizalegez-

koa izan dadin. Eta ba al dago Espainiako legeetan zantzurik birsartzea edukiz betetzeko? Bai horixe. Baina hori bi urratsetan azaldu beharra dago.

Lehen urratsa: presoaren sailkapena. Berriz sartzea ahalbidetzeko indibidualizazio sistema zientifiko deritzona erabiltzen da. Sistema horrek preso bakoitza sailkatzen du, bizimodu jakin bat emateko asmoz. Bizimoduak edo tratamenduak, legez, berriz sartzeko egin beharreko ekintza guztiak biltzen ditu. Teoriaz, behintzat, sailkapenaren helburua halako bizimodua eta tratamendua ezartzea da, presoari bere egoeran hoberen dokakia ahalik eta lasterrena gizar-teran berriz txertatzeko moduan egon dadin. Lehen graduko sailkapena, bigarrena, hirugarrena edo eraentzea zabalera edo deitua eta laugarrena edo baldintzapean aske uztea, beraz, tratamenduaren graduak besterik ez dira. Graduok legez ez dira bata bestearen atzetik aplikatu behar, denbora pasatu ahala batetik bestera iraganez. Ez hori bazen lehen —Francoren garaian— zegoen sistema progresiboaren filosofia. Orain, teoriaz, presoaren egoera osoa —ez presondegian emandako denbora edo egindako delituaren astuntasuna— da gradueta aurreratzeko gakoa.

Esandakoa esanda, ba al dago, ordea, sailkapena egiteko bestelako irizpide zehatzagorik? Edo Barne Ministerioak —presondegi administrazioak— egiten duena egiten duela onartu beharra daukagu, besterik gabe?

Bigarren urratsa: etorkizuna da gakoa, ez iragana. Tratamendua eta sailkapena berriz sartzeko helburua posible izateko tresnak besterik ez dira. Baina zer da erabakigarria preso bat berriz sartzetik

hurbil dagoen aztertzen dugunena? Hots: ba al da legean orientatutako zehatzagorik berriz sartzearen irizpide artezkari izan litekeena?

Bai. Presondegi Lege (1/1979) Organiko Orokorren 59.2. artikulua zera dio: «Tratamenduak zera biltzen du: barneratuak bai asmoa bai gaitasuna izan ditzala lege penala errespetatzeko bizimodua aurrera eramateko (...).» Bestela esanda, preso baten kasuan argi eta garbi badago, presondegitik ateratzen denean, lege penala errespetatzen biziko dela, badago berriz sartzeko edota gizarteratzeko moduan: helburua beteta legoke.

Legeak ez du esaten egindakoak damu behar duenik —damuturik egon badaitekeen arren— are gutxiago bere ideologia alde batera utzi behar duenik, kartzelatik ateratzerakoan halako aldaketak gertatzea posible izan arren. Irizpide nagusiak aurrera begiratzen du, eta, horren arabera, sailkapena aurrera eraman beharko litzateke. Gainera, hala izaten da gure kultur-esparruan diren herrialdeetan ere. Eta irizpide hori zehatzeko, oraindik ere badira bestelako betekizunak, normalean eskatzen direnak, lege penala errespetatuko denaren berme gisakoak ulertu beharrekoak.

3. Estandar demokratikoa: beste betekizunak. Delitu larria izan bada, presondegi barruan denbora jakin bat eman beharra dago, normalean zigorraren erdia. Handik aurrera askatasunean (baldintzapeko askatasuna) edo erdi-askatasunean (hirugarren gradua) bete daiteke zigorra, baldin eta egindako kaltea aitortu bada. Eta kontuz, askatasun-eraentzetan ere zigorra betetzen ari da, legea betetzen ari da, legearen inperioak bere horretan dirau.

Hiru dira konklusioz sailkapenean aurrera egiteko betekizun demokratikoak: denbora jakin bat pasatu izana —erdiaren bueltan ez gehiago—; egindako kaltea aitortzea eta borondatea edukitzea lege penala etorkizunean errespetatzeko. Hiruretatik azkeneko nabardura eskatzen duena kaltea aitortze-arena da. Izan ere, aitortzeko moduak eta moduak daude: aitortzak egindako delituaren inguruan, presondegitik ateratzen denean, lege penala errespetatzen biziko dela, badago berriz sartzeko edota gizarteratzeko moduan: helburua beteta legoke.

Denbora jakin bat (1), aitortze indibiduala (1) eta borondatea delitu gehiagorik ez egiteko (3): horra hor estandar demokratikoa. Horra hor legearen inperioa, benetakoa, giza-legezkoa, gizatiarra, legitimoa. Eta hortik aurrera etsaiaren zuzenbide penala, ez-demokratikoa. Izan ere, biktimari barkamena eskatzea, beste pertsonen salaketa, ETAREN «ingurune»-tik aldentzea eta antzekoak ezin baitira galdatu, ezta egungo legea eskuan edukita ere, ez baitira halabeharrezkoak.

4. Inperioak ez ditut gustuko baina legearena onargarria liteke, lege demokratikoa denean. Eta demokratikoa izateko ez da nahiko zilegitasun formula —gehiengo batean onartua izatea—. Zilegitasun materiala ere behar da, printzipioak serio hartzetik eratorriko dena, bai eta berriz sartzeko printzipio bera ere.